

63 DONOSTIA ZINEMALDIA

Islandiako lezioa

400 URTEREN ONDOREN euskaldunak hiltzea legez kanpokotzat jo zuten Islandian aurtengo apirilean. Ez da brometako kontua, 1615ean baleazale gipuzkoarrak garbitzeko emandako patenteak indarrean jarraitzen zuen lurrun-makina, produkzio-harreman kapitalistak eta Guggenheim museoa asmatzen zituzten bitartean. Total, orain islandiarrek ez gaituztela jo eta akabatu nahi eta borondate oneko keinu horri erantzunez edo, aurtengo Donostiako Zinemaldiko Urrezko Maskorra irla horretara joango dela.

Rúnar Rúnarsson zuzendariak harridura aurpegiarekin altxa zuen molusko preziatua larunbateko ekitaldian: *Sparrows* film intimista irabazle. Itxuraz oso istorio lokala; tematikari begiratu gero, guztiz unibertsala: banandutako gurasoak, alkoholismoa, helduleku emozionalen falta, belaunaldi-talka, heldu izaten hastea, maskulinitatea ulertzeko moduak... Ekoizpen txikia dela seinatu dute eta egia da. Baina beste jolas dibertigarrietan ez bezala, zeluloidearekin zerikusia duen honetan tamainak ez du hainbeste inporta. Bost axola 320.000 hitzunek bakarrik darabilten hizkuntza batean errodatu izana ere, Islandia konplexurik gabe ateratzen da mundura bere musikari, idazle, zinemagile eta artistekin.

Kataluniaren inbidiaz pasatzen dugun denboraren erdia iparrera begiratzeko prismatikoak lortzen inbertituko bagenu, agian kulturalki herri aberatsagoa ginatke. Saiatzegatik ez gaituzte hilko behintzat. Hiltzen bagaituzte ere, legez kanpoko da orain eta, gaitzerdi.

Maskortuta

Diskisizio historiko-politiko-kultural honen zergatiaz galdetuko duzue artikularen puntu honetaraino agoantatu duzenok, ustez hemen Zinemaldiko palmaresa komentatzeko baikeuden. Kontua da, gainontzeko sari batzuk aurreikusteko modukoak iruditu zaizkigula, batez ere *Truman* filmaren ia pisu guz-



Sparrows film islandiarrak lortu du Donostiako saririk garrantzitsuenaren.

tiari eutsi dioten protagonistek *ex aequo* jaso duten Zilarrezko Maskorra –Ricardo Darin eta Javier Camara–. Baita *El rey de La Habana* ko Yordanka Ariosarena ere, gainantzezpena gorabehera, festibaleko gezurmendietan saria jaso zezaketen aktoreen kineletan agertzen baitzen.

Erabaki eztabaidagarriagoak ere hartu ditu Paprika Steen buru izan duen epaimahaiak. Ez dut uste *Les chevaliers blancs* gidatu duen Joachim Lafosse izan denik Sail Ofizialeko zuzendaririk onena –klasikorro jarriko naiz eta Terence Daviesek atal honetan errekonozimenduren bat merezi zuela esango dut–. Ez dut uste, halaber, *21 nuits avec Pattie* gidoi onenaren saria merezi zuenik. Eta *Evolution* nek lortu duen argazki onenaren saria berdin izan zitekeen Asier Altunaren *Amamarentzat* –euskal film onenaren Irizar sariarekin konformatu behar izan du– edo lehiatu diren beste lauzpabost lanentzat, aurtengo filmetan argazkia erdipurdiko tonuaren gainetik egon baita.

Sariak gorabehera, aretoetan hain erraz ikusi ezin diren filmekin gozatzeko –eta sufritzeko– parada da Zinemaldia. Astebetez pelikulak erdigunean jartzen dituen eztabaida kolektiboa. Eta horren balio kulturala ez da gutxieteko modukoa. ■

Gorka Bereziartua Mitxelena